

A background image showing the lower halves of several people standing and using their smartphones. One person on the left wears a yellow top and a blue denim jacket. A person in the center wears a red hoodie and grey pants. Another person on the right wears a pink top. They are all holding and looking at their mobile devices.

BiscayTIK Fundazioaren X. urteurrena
“Bizkaiko Administrazio Digitala hobetzeko gazteentzako ideia-lehiaketa”

LEHIAKETAREN OINARRIAK

0

1.- Lehiaketaren helburua

Lehiaketa honen bidez, BiscayTIKek Bizkaiko gazteek Administrazio Digitalaren bultzadan eta Bizkaiko udalen modernizazio teknologikoan parte har dezaten bilatzen du.

2.- Parte-hartzaileak

Parte har dezaketen gazteek bete beharreko baldintzak hauek dira:

- Adina 18-29 urte, 2018/12/31rako beteak.
- Edozein nazionalitateko gazteak, Bizkaian bizi direnak, lan egiten dutenak edo ikasten dutenak.

3.- Ideien gaiak

Lehiaketak aitortpena eman nahi die administrazio lokaletan (udalak, mankomunitateak...) eraldaketa digitala bultzatzera bideratutako proposamen berriei.

Aurkeztutako ideiek honako erronka hauetako batera bideratuta egon beharko dute:

- 1. ERRONKA: Zer zerbitzu berri eskain dezake nire udalak teknologia berrien bitartez?
- 2. ERRONKA: Nola hurreratu herritarrak zerbitzu publiko digitaletara, haien erabilera sustatuz, batez ere teknologia berriak erabiltzeko ohitura gutxien duten pertsonen artean?

4.- Ideien aurkezpena

Lehiaketara ideiak aurkezteko, prozedura honi jarraitu behar zaio:

1. ideiak.biscaytik.eus webgunean dagoen formularioan sartu.
2. Formularioa bete, proposatutako ideia zehatz azaltzeko behar den informazioa eman.
3. Beharrezkoa izango da bideo bat eranstea, 2 minutukoa asko jota, ideia azalduz. Bideoa web plataforma batera igo (adibidez, YouTube, Vimeo...), eta sarrerako lotura erantsi beharko da, formularioan horretarako dagoen lekuan. Horrez gain, sare sozialetan partekatu beharko da hashtag hauekin: #ideas2018administraciondigital; #ideiak2018administraciondigitala eta #BiscayTIK
4. Formularioa bete ondoren, ideia hobeto ulertzeko baliagarriak diren beste edozein dokumentu bidali dezakezu (adibidez: infogramak, aurkezpenak, eskemak, prototipoak,...) Posta elektronikoko bat igorri beharko da ideialehiaketa@bizkaia.org helbidera, gaian izena eta proiektua adierazita. Jaso dela adierazten duen baieztapena igorriko da.

Ideiak bakarka zein taldean aurkez daitezke.

Ideia taldean aurkeztuz gero, parte hartzen duen talde bakoitzak erreferentziazko pertsona lider bat definitu beharko du, eta lehiaketaren koordinazio taldeak harekin izango du komunikazio ofiziala.

Parte hartzen duten pertsonak kontuan hartu beharko dute:

- Talde bakoitzak gehienez ere erronka bakoitzerako bi ideia aurkeztu ahal izango dituela.
- Pertsona batek gehienez ere erronka bakoitzerako hiru ideia aurkeztu ahal izango dituela.

5.- Ideiak onartzeko epea

Ideiak jasotzeko epea 2018ko irailaren 26tik (asteazkena) azaroaren 9ra (ostirala) bitartekoa izango da, biak barne.

6.- Aurkeztutako ideiek bete beharreko baldintzak

Parte hartzen duten pertsonak bermatuko dute proposatutako ideien edukiek ez dituztela hirugarrenen eskubideak urratzen, ez direla ez iraingarriak ez laidogarriak, ez dutela ez indarkeriara ez arrazismora bultzatzen, ez dituztela urratzen ez funtsezko eskubideak ez aplikatu daitezkeen legeriak aitortutako askatasun publikoak, ezta haurren eta gazteriaren babesari buruzkoak ere, ez dutela intromisorik eragiten pertsona fisikoen intimitate pertsonalean edo familiarrean, ez dutela urratzen hirugarrenen ohorerako edo komunikazioen sekreturako eskubidea, eta ez direla indarrean den legeriaren aurkakoak.

Baldintza hori betetzen ez duen edozein proposamen Lehiaketatik at geratuko da.

7.- Proposatutako ideien ebaluazioa eta aukeraketa

Jasotako ideien ebaluazioa elkarren osagarri diren 2 bidetatik egingo da, eta horietako bakoitzak % 50eko pisua izango du azken balorazioan, eta balorazio orokorra bi balorazioen batuketa izango da.

1. bidea – Parte-hartzaileen balorazioa

Parte-hartzaileek ordenan aukeratu beharko dituzte parte hartu duten erronkako 3 proposamen onenak, 3, 2 eta 1 puntu emanaz hurrenez hurren. Horretarako, lehiaketaren koordinazio taldeak proposamen bakoitzaren erreferentziako pertsonari e-mail bat bidaliko dio jasotako proposamen guztien bideoekin, bere aukeraketa egin dezan.

Botoa ematen duen pertsonak ezin izango du bera, erreferentziako pertsona moduan edo taldeko kide moduan, parte-hartzaileen artean duen ideia bat aukeratu, eta baldintza hori betetzen ez duen botoa baliogabetu egingo da.

Parte-hartzaileengandik jasotako puntuazio guztiak batu eta gero, horiek gehitu egingo dira, guztira 100 puntu emanaz erronka bakoitzeko proposamenik bozkatuenari, eta gainerakoei dagokien puntuazio proportzionala.

2. bidea – Epaimahaiaren balorazioa

Epaimahaia BiscayTIKek eta Observatorio de Bizkaia-Bizkaiko Behatokiak izendatutako 3 pertsonak osatuko dute.

Onartutako ideiak Epaimahaiko kide bakoitzak ebaluatuko ditu, irizpide hauei jarraituta:

1. ERRONKA: Teknologia berrien bidez eskaini ahal izango diren zerbitzu berriak.

Ebaluazio irizpideak	Gehienezko puntuazioa
Ideia originaltasuna	40
Bizkaiko administrazio digitala hobetzeko eragina izateko potentziala	30
Zerbitzu berriak esparru lokalean eragina izateko duen potentziala	15
Proiektuaren zehaztapen eta garapen maila	15

2. ERRONKA: Zerbitzu publiko digitalak herritarrei hurreratzeko modu berriak, haien erabilera sustatuz, batez ere teknologia berriak erabiltzeko ohitura gutxien duten pertsonen artean.

Ebaluazio irizpideak	Gehienezko puntuazioa
Ideiaen originaltasuna	40
Bizkaiko administrazio digitala hobetzeko eragina izateko potentziala	30
Administrazio digitala harekin gutxien ohitutako kolektiboetarako hurreratzeko eragin espezifikoak	15
Proiektuaren zehaztapen eta garapen maila	15

Epaimahaiko kide diren pertsona guztiek emandako puntuazioak batu eta gero, horiek gehitu egingo dira, guztira 100 puntu emanaz erroka bakoitzeko proposamenik bozkatuenari, eta gainerakoei dagokien puntuazio proportzionala.

8.- Saria

Erroka bakoitzean puntuazio handiena lortzen duten proiektuek 1.000€ (mila euro) jasoko dute sari gisa.

Sarien diru-kopuruari indarrean den zerga-legeriaren arabera atxikipena dagokio, eta atxikipen horiek saritutako parte-hartzaileen kargu izango dira.

9.- Sari banaketa

Sari banaketa BiscayTIKen X. urteurrenaren itxierako ekitaldian egingo da, 2018ko azaroaren 29an Bilboko Euskalduna Jauregian.

10.- Beste baldintza batzuk

Parte-hartzaileak Lehiaketaren oinarriak onartzeko eta betetzeko konpromisoa hartzen dute. Ideia aurkezteak Oinarri hauetan adierazten diren baldintza eta betebeharrak espresuki eta modu formalean onartzea dakar.

Saritutako proiektuek onartzen dute beren ideiak aurkeztuak izatea BiscayTIKen X. urteurrenaren itxiera ekitaldian, 2018ko azaroaren 29an Bilboko Euskalduna Jauregian.

Epaimahaia oinarri hauen interpretazioan sortzen den edozein zalantza ebatziko du, eta haren erabakia apelaezina izango da.